

## **KULTUR GUNEAREN 7. BILERA**

### BERTARATUAK:

- Belen: Kultura teknikaria.
- Gemma: Lesakako Abesbatza.
- Arritxu: Tantirumairu Euskal Folklore Taldea.
- Edurne: Lesakako Txistulari Taldea.
- Ander: Elutxa Txaranga eta Beti-Gazte (Kultura)
- Estitxu: Bertso Eskola eta Otxogorrienea Guraso Elkartea.
- Joxepa: San Fermin Jubilatuen Elkartea eta Giltzarri Abesbatza.
- Nekane: Lesakako Trikitilariak.
- Javier: Lesakako Musika Banda.
- Ione: Geroa Bai Udal taldea.
- Iban, Ladis eta Mattane: EH Bildu Udal taldea.

1. Aitzineko aktaren onarpena egin da. Lesakako Emakume Taldearen bertaratzea falta zen aktan eta horren zuzenketa egin dugu.
2. Kultur Bilgunearen IZENA: Proposamenak arbelean idatzi eta bozketa egin dugu: *Marimakur, Sorginxulo, Napoleones, Intxixune, Kulturxulo*. Bozketa egin dugu eta lehendabiziko itzulian *Intxixune* eta *Sorginxulo* izan dira bozkatuenak. Ondotik *Intxixunek* 5 bozka eta *Sorginxulok* 6 jaso ditu, beraz **SORGINXULO LESAKAKO KULTUR BILGUNEA** izena onartu da.  
Ondotik logo edo irudi bat egiteko proposamena luzatu da. Hurrengorako proposamenak ekarriko ditugu eta bertzenaz norbaiteri egiteko enkargua luzatuko zaio.
3. Liburu Xuria: Data bat zehaztu dugu taldeak idazten hasteko. Honela, otsailaren 1erako, norberak bere taldearen aurkezpena egiteko erabakia hartu dugu. Geroa Baiek aipatu du, talde politiko gisa beraien aurkezpena liburu honetan egotea ez dutela egoki ikusten.
4. Diru-laguntzen banaketa irizpideak: Proposamen orria banatu du Ibanek eta puntuz-puntu aztertu dugu. Sortu diren kezkak eta eztabaida ondokoen inguruan izan da: Ohiturazko ekitaldiak zein diren zehaztu beharra dela aipatu da, funtzionamendu gastuetan minimoa jarri behar da? Funtzionamendu gastuetan maximo edo tope bat izanen da. Bestetako gastuak kulturaren partidatik atera behar dira? Otorduen inguruko kezkak, orain arte bezala uztea ikusi da.

Hurrengo bilera 2020ko ilbeltzaren 11an, goizeko 09:30ean egingen dugu Harriondoako Zumarra artoan eta ordu eta erdiko iraupena izanen du.